

Peña Otaño,

50. urteurrena



Esku artean duzuen hau paper asko begiratu eta, batzuk bertan eta beste batzuk urrutiago, datu asko arakatsaren emaitza da. *Oinez egiten da bidea* esan omen zuen poetak eta Peñaren kasuan asmatu egin zuen. Ez da gertatutako guztia azaltzen, ezta Peña orain dena izateko izen askok egin duten lana eta txikitasunak ere.

Lagundu digutenak gogoratu nahian Josetxo Santana, José Luis González eta Alfredo Azkueren hitzak eskertu behar ditugu, Peña Otañoaren aurrean pausotan murgildu baikintuzten. Eta Gipuzkoako Txirrindulari Elkargo, Joxan Aizpurua eta Manolo García Sarasolari ere bai, dutena utzi eta konpontzeko ederki etorri zaigulako.

Badakigu ez dugula hitz egin zerbait dakiten guztiekin, baina ezin izan dugu. Oinarrizkoak bete izana espero dugu. Xehetasunek liburu baterako eman dezakete, eta ez litzateke gaizki egongo, izan ere kontu-pila oso polita da.

Atea irekita dago.

Peña Otañoaren bidea

- 1959-09-05** Peña Otañoaren Batzar Orokorra ospatu zen eta bazkide guztiak azaldu ziren. Aho batez onartu zuten bere sorrera. Bere lehen helbidea Oarso, 2 - 1. B izan zen eta lehen lehendakaria, Batzar honetan hautatua, Josetxo Santana. Horren guztiaren berri hauei eman zitzairen: Hernaniko alkateari, Udal-Kirol delegatuari eta Elur-Txoriko lehendakariari, bere laguntza eskertuz.
Ikur bat ere onartu zen, Hernaniko ezkutua bertan sartzekotan, alkatearekin hitz egin arte gelditu baziren ere.
- 1959-12-13** Luis Otañori omenezko afari bat egitea onartu zen, Elur-Txoriko lehendakaria, Elizegi jauna, eta txirrindulari batzuk gonbidatu gisa etorriko zirela.
- 1960-01-13** Elur-Txoriko lehendakari aukeratu berriari, Joanito Aierberi, Peñaren bilerak Elur-Txorin egitea eskatzea onartu zen.
- 1960-09-16** Batzar Orokorra. Karting taldeak, Josetxo García Sarasolak sinatuta, Peñan sartzeko egin zuen eskaeradatzia irakurri zen. Aho batez onartu zen, garbi utzita kirol berri hau atal bat izango zela eta besteetan bezala Zuzendaritzak aginduko zuela. Bazkide-tokia bilatzea onartu zen.
- 1960-12-01** Ikur txuri, gorri, berdea egin nahi, baina koloreak omen ziren arazo, eta ziurtagiri bat lortu behar izan zen Gobernu Zibiletik. Hola egin zituen.
- 1960-12-08** Ezohiko Batzarra. 1.000 pezetako 100 bono atera ziren bazkide-tokia erosteko.
- 1960-12-23** Luis Otañoaren omenez afari bat egitea onartu zen. Abenduaren 30ean egingo da Elur-Txorin eta urrezko ikurra emango zaio. Emango den lehenbizikoa izango da.

- 1961-03-09** Gipuzkoako Aurrezki Kutxari 20 urtetan ordaintzeko mailegua eskatzea onartu zen. Oarso, 2ko bazkide-tokia erosteko izango da.
- 1961-07-24** Ezohiko Batzarra. Peña Otañoren "atseginezkoa" onartu zen aho batez.
- 1962-03-30** Apirilaren 27an inauguratuko da bazkide-tokia. Zintzotasuna zinegelan bi film emango dira eta Migel Etxebarren traumatologoak txirrindularitzari buruz hitz egingo du. 28an bazkide-tokiko giltzak emango zaizkie bazkideei eta 29an inaugurazio-bazkaria egingo da.
- 1965-12-02** Ezohiko Batzarra. Estatutuak aldatzea proposatu zen egungo Lege, dekretu eta ordenetara egokitzearen. Aho batez onartu zen.
- 1966-03-16** JOCCek bere tokia ez duenez, bere artxiboa Peña Otañon egotea onartu zen.
- 1966-08-03** Munduko Futbol txapelketa izan dela-eta telebista erostea onartu zen. Espainiako txapelketa irabazi duela-eta omenezko afari bat egingo zaio Luis Otañori.
- 1967-09-30** Irailaren 30ean ezkondu aurreko agur-afaria egin zaio Luis Otañori.
- 1968-01-14** Batzar Orokorra. JOCCa hiru entitatek osatzen dute, baina batek ekonomikoki ez du erantzuten. Txirrindularitza Peña Otañon sartuta dagoenez, eta berez Peña Otañorena denez, Peña Otañok JOCC har ote lezake bere kargu?
- 1968-10-18** Peña Otaño handitu nahian, aldameneko etxebizitzaz galdetu da. Gestioa ez da gauzatu.
- 1971-07-04** Ohorezko lehendakari izendatzeaz gain, Leandro Irazustari urrezko ikurra ematea onartu zen. Bere argazkia Peña Otañon jarriko da.
- 1975-07-05** Ezohiko Batzarra. Zuzendaritzari baimena eman zitzaion Lizeaga auzoko lokala erosteko seinalea emateko.
- 1977-02-20** Batzar Orokorra. Entitatearen izena euskaraz jartzea erabaki zen, sarreran eta inprimakietan azal dadin.
- 1979-05-07** Sanjoanetan txaranga aterako den begiratzea onartu zen.
- 1982-08-03** Urriaren 3an egingo den *Kilometroak 82*rekin lankidetzan aritzea onartu zen, materiala, zerbitzu eta laguntzaileak jarrita.
- 1983-03-27** Ezohiko Batzarra. Estatutuak puntuz puntu irakurri eta onartu egin ziren eta iragarki-taulan jartzea erabaki.
- 1983-08-02** Bere laguntza eskertzeko Langile Ikastolak *Kilometroak 82*ko kartel bat oparitu dio Peña Otañori. Koadro batean sartu eta bazkideen aurrean jartzea erabakitzen da.
- 1984-01-09** Peñaren 25. urteurrena ospatze aldera, herrigunean txirrindularitza proba bat egitea eta lagun arteko bazkari bat egitea erabaki zen.
- 1984-07-10** Peñako lehendakarien argazkien koadro bat jartzea erabaki zen.
- 1985-10-01** Garaikurrak ikusgai jartzeko bitrina bat jartzea erabaki zen.
- 1991-02-24** Lehen aldiz lehendakaria taldekako sistema erabiliz aukeratu zen.
- 1993-02-28** Ezohiko Batzarra. Estatutuak 3/1988 Legeari egokitu zitzaizkion. Puntuz puntu eta kapituluz kapitulu irakurri ziren, eta xehetasun guztiak argitu ondoren, onartu egin ziren.
- 1999-03-14** Ohiko Batzarra. 14 urtetik gorako emakumeak sartzea baimendu zen, egun edo ordu mugarik gabe, baina haurrak ez.
- 2002-02-24** Ezohiko Batzarra. Indarrean dauden erabakiak eguneratzen dituen barne araudia.
- 2002-09-26.** Kontabilitatea informatizatzeko atze-aurreak egiten hastea erabaki zen.

Argazki bilduma

Bestek beste:

José Luis Gutiérrez "Guti", Alfredo Azkue, Nazario Zulaika, Luis Fernández, Francisco Oruezabala eta Agustín Mendizábal.



Mahaiburuan Josetxo Santana, Prudencio Aierra, Luis Otaño, Inazio Setien eta Josetxo García Sarasola.



Besteak beste, zutik: Fermín Cuesta, Santi Zubeldia, José Mari Goñi, Jesús Carrión, Manolo Adarraga, Txomin Perurena, Leandro Lujanbio, Ramón Mendiburu, Zuza (aita), José Mari Armendariz eta José Mari Zubillaga; makurtuta: Patxi Ugalde, José Antonio Apeztexea eta Javier Alberdi "Pastelero".





Peña Otaño egunean haur
- jolasak, oraindik Oarso
kalean geunden.



Nicanor Irazusta, Leandro Irazusta, Florentino Monfort eta Josetxo Santana.



Alfredo Azkue eta Prudencio Aierra.



Karlos Argiñano eta Juan Mari Arzak 2001eko urtarrilean
sukaldea jarri berria zenean.



Eugenio Belategi, Joxemiel Azurmendi eta Anjel Garmendia.

Mende erdi honetan hauek izan dira lehendakariak.



Josetxo Santana
1959-1960



Ignacio Setien
1962-1963



José García Sarasola
1964



Prudencio Ayerra
(1965-1967) 1979



Francisco Gorroa
1968



Francisco Oruezabala
(1969-1971) 1974



Luis Antonio Rekondo
1972



José Ángel Landazuri
1973



Inazio Aristeta
1975-1977



José Luis Gutiérrez
1978



José Mari Soto
1980-1981



José Dorronsoro
(1982-1983)(1990-1991)
(1996-1997)



Patxi Iriondo
1984-1989



Juan José Montero
1992-1993



José Mari Odriozola
(1994-1995)(2002-2003)



Inaki Casado
1998-1999



J.M. Azurmendi
(2000-2001) (2008-2009)



Pedro Galardi
2004-2005



Pedro Ugalde
2006-2007

1959 Josetxo Santana
1960 Josetxo Santana
1962 Inazio Setien
1964 José García Sarasola
1965 Prudencio Ayerra
1966 Prudencio Ayerra
1968 Francisco Gorroa
1969 Francisco Oruezabala
1970 Francisco Oruezabala
1972 Luis Antonio Rekondo
1973 José Ángel Landazuri

1974 Francisco Oruezabala
1975 Inazio Aristeta
1978 José Luis Gutiérrez
1979 Prudencio Ayerra
1980 José Mari Soto
1981 José Mari Soto
1982 José Dorronsoro
1983 José Dorronsoro
1984 Francisco Iriondo
1986 Francisco Iriondo
1990 José Dorronsoro

1992 Juan José Montero
1993 Juan José Montero
1994 José Mari Odriozola
1996 José Dorronsoro
1998 Inaki Casado
2000 Joxemiel Azurmendi
2002 José Mari Odriozola
2004 Pedro Galardi
2006 Pedro Ugalde
2008 Joxemiel Azurmendi

Eta, beste aldetik, ohorezko bazkideak Lucio Yaniz Arrieta, José A. Egaña Rodríguez, P. Jesús Bilbao Moya, José M. Olano Zubiri eta Atanasio Irurtia dira.

Ekintzak

MUSA

Peña Otañok 1962tik aurrera urtero egiten du bere mus txapelketa eta 1986tik Elkarte artekoan hartzen du parte. 1998an, hola egokituta, antolatu egin zuen eta txapeldunorde gelditu. 2009an ere antolatzea dagokio. 1991n EGIN egunkariko finala antolatu zuen.

TXARANGA

1979an Sanjoanetan txaranga atera zuen.



EUSKARA

1982an, urriaren 5ean, lan egin zuen *Kilometroak* 82ren alde. Prontxio Aierrak asmatu omen zuen ibilbidea. Langile Ikastolak eskerronez hormirudia eman zion Peña Otañori. BATEGINIKeko antolatzaileek euskararen aldeko laguntza eskatu zuten eta elkarte bakoitzean herri afari bat egin eta ateratako dirua antolatzaileei ematea erabaki zen. 1990ean AEKri diru-laguntza eman zitzaion.

DANTZA

2002an bazkari bat antolatu zen Dantzari Egunaren alde.

SAGARDOA

2002an, urriaren 11n, Peña Otañoko lehen sagardo lehiaketa antolatu zen.

JOCC - Junta Organizadora de Competiciones Ciclistas

Herrian txirrindularitza sustatu behar zenez eta jendea lanerako izanik, C.D. Hernani, Peña Otaño eta O.S. de Educación y Descansoko ordezkariak bildu ziren Junta Organizadora de Competiciones Ciclistas (JOCC) sortzeko, zeina 1959ko azaroaren 20an legeztatu zuten.

Sorrerako akta hauek sinatu zuten: C.D. Hernanitik Tiburtzio Agirre lehendakariak, Peña Otañotik Josetxo Santana lehendakariak eta Educación y Descansotik Nicanor Irazusta ordezkariak.

Erabaki zuten, C.D. Hernani herrian errotuena zela eta, bere ordezkaria JOCCeko lehendakaria izatea, lehendakariordea Peña Otañokoa izatea eta Idazkaritza-Diruzaintza Educación y Descansoren arduran uztea. Beraz, JOCC lanean hasi zen Leandro

Irazusta lehendakari, Josetxo Santana lehendakariorde eta Nicanor Irazusta idazkari-diruzain zituela.

Paper fidagarririk ez dagoenez, nahia-go izan dugu izenik ez azaldu, inor ez ahazteko noski, nahiz eta ondo dakigun aurreneko urtetan Peña Otaño izan zela JOCCen gorputz eta arima.

Erabaki zen entitate bakoitzak JOCCi kuota moduan urtero 2.000 pezeta ematea, hasiera hartan bere lana esku aske egin zezan. 1963an 3.000ra igo zuten, 1965ean 5.000ra eta 1967an 7.000ra.


Dirudienez, 1965 eta 1966an ez zuten dirurik jarri. Izan ere, Donostian antolatu zen Munduko Txapelketan nahiko diru bildu zenez, JOCCek diruz ondotoxo hornituta egin zuen bere lana. Gastuen

gehitzeak, txirrindulari ekipoa mantentzea eta lasterketak antolatzea, kuotaren gehitza ekarri zuen.

Izan ere, lasterketa batzuk Gipuzkoako egutegian sartuta zeuden eta beste batzuk, Hernaniko jendeak lan asko eta ondo egin zuenez, Hernanira ekarri ziren. Orduko JOCC hark Usurbil, Ergobia, Astigarraga, Andoain eta Donostian ere antolatu zituen lasterketak.

Honen adibide bat Tolosan 1981an antolatu zen Ziklo-Krosseko Munduko txapelketan gertatu zen.

Prudencio Aierrak José Luis Gonzalez bitartez 500.000 pezeta eskatu zizkion Euskadiko Kutxari. Eta, nahiz eta José Luisi erruzkeria irudit, Euskadiko Kutxak eman egin zuen. Holaxe egin da lan Hernanin.



LASTERKETAK¹

Hauek dira JOCCek antolatu dituen lasterketa batzuk:

LASTERKETA	URTEAK	ZENBAT ALDIZ
San Juan	1960-2004	39
Arañoko Igoera	1968-1990	23
Gipuzkoako Txapelketa erlojupekoa "Servais-en Oroimenezkoa"	1960-1974	15
Gipuzkoako erlojupeko Txapelketa	1969-1993	4
Hernaniko Klasikoa	1988-2001	3
Biarritz - Hernani	1985-1986	2
Espainiako Txapelketa (gazteen mailakoa)	1960	2
Ziklo-kroseko Gipuzkoako Txapelketa	1964-1986	2
Bordelais - Donostia Tourra (irteera eta helmuga)	1959-1968	1
Espainiako afizionatu Txapelketa	1964	1
Espainiako afizionatu Txapelketa (erlojupekoa federazioka)	1959-1968	1
Espainiako afizionatu Txapelketa (taldeka)	1970	1
Espainiako Bira (Hernani-Tolosa erlojupekoa)	1968	1
Euskadiko Txapelketa	1999	1
Euskal Herriko 38. Itzulia	1998	1
Euskal-Nafar Bira (gazteen mailakoa etapa bat)	1960	1
Independienteen Espainiako Txapelketa	1959-1968	1
Kantauriko III. Jokoak	1966	1
Lasarteko Zirkuitoa	1990	1
Munduko Txapelketa (Donostia)	1965	1
Ziklo-kroseko Euskal-Nafar Txapelketa	1960	1

¹ Batzuetan paperen faltak eta beste batzuetan datu faltak, erabat baldintzatu dute gure lana. Lasterketak mailarik gabe daude. Hau da usteak ustel bihurtzea.

Kart-ak

Hernanin 1959an kirol berri batean hasi ziren, kartinean. Taldea 1960ko irailaren 16an Peña Otañoan sartu zen. Ezagunenak Roberto Usabiaga, Jose-txo eta Manolo García Sarasola, Karmelo Ogando, Simón Garin, José Antonio Cuesta, Juan Urruzola, Javier Bengoetxea, Isidro Garmendia eta Migel Capa ziren.

1965ean elkartu zitzaizkien Jean eta Paulette Lavie, Sousolons, Sens, Mesprede eta Napias eta emaztea, batzuk Frantziako ekipokoak ziren.

Bartzelona, Madril, Santander, Zaragoza, Gijón, Logroño eta Donostian lehiatu ziren. Eta Hernanin ere bai, noski. Bolido hobeak izanik eta bere maila ikusita, frantsesak izaten ziren faborito. Dena dela, hernaniarrek ehun trofeo baino gehiago lortu zituzten. Hernanin ibili ziren estatubatuar bat, hiru Kataluniako, hiru madrildar, bi Santanderko, bi asturiar eta nafar bat.

Bi eratan lehiatzen ziren: lerroan, denak batera, eta amerikar eran, bira bakoitzeko azkenak kanpoan gelditzen zirela. 25 aldiz betetzen zuten zirkuitu hau: Juan de Urbietan, Biteri parean, abiatu, Izpizuan gora jarraitu, Zintzotasuna Zinean eskubira hartu eta Elkano behera Juan de Urbietan amaitu.



Josetxo García Sarasola

Lehiaketak euskal-nafar trofeorako balio zuen. Kronometrajea Gipuzkoako Federazioak egiten zuen eta kontrolatzaileak Gipuzkoako Real Automóvil Clubek jartzen zituen. Antolaketa, xehetasun guztiak barne, eta asko ziren, Peña Otañoaren ardura zen. Babesa, ia dena, Udalarena, lehiaketa jai-programan sartuta zegoen eta.

Hola izan zen 1965etik 1970era. Azken honek Espainiako txapelketarako balio izan zuen. Hala ere, 1961eko urriaren 1ean antolatu zen aurrenekoa. 1967ko Gabon egunean antolatu zen Xoxokako igoera eta, eguraldi txarra egin arren, arrakastatsua gertatu zen. Aranora ere igo omen ziren, baina ez dugu aztararik aurkitu.

Kart-ak mugatik pasatzea zaila zen eta behin baino gehiagotan konpondu zuten alkatearen bitartez eta dirua aurrreratuta. Eta kart-ak bere etxe aldera itzultzen zituztenean, dirua jaso.

1968an saiatu ziren umeentzako kart lehiaketa antolatzen, baina mila oztopogatik ezin izan zuten.

Peña Otañoako akta batean, 1969ko maiatzaren 26koan hain zuzen, lana nola egiten zuten oso ondo adierazten da: *"Lehiaketa bikaina gerta dadin, ez utzi ezertxo ere zehaztu gabe"*.



Besteak beste, Patricio Rodríguez, Javier Bengoetxea, "Piru" Iparragirre, Simón Garin, Isidro Garmendia, Carmelo Ogando, Manolo García Sarasola eta Roberto Usabiaga



Patricio Rodríguez, Josetxo eta Manolo García Sarasola.

Aitorpenak

1959-12-13	Luis Otanori afari bat eskaintzea erabaki da; Elur-Txoriko lehendakaria, Elizegi jauna, eta txirrindulari batzuk gonbidatuta.
1960-12-23	1961eko urtarrilaren 10ean Elur-Txorin Luis Otanori afari bat eskaintzea erabaki da. Lehen urrezko domina ezarriko zaio.
1962-03-30	Jesús Maidagan, José Garaia, Francisco Oruezabala eta Marcos Estefanori zilarrezko domina ematea erabaki da.
1962-05-18	Emiliano García eta Aurelio Hijarrubiari zilarrezko domina ematea erabaki da.
1962-08-17	Pena Otañoren egoitza inauguratu zenean musu truk egindako lanagatik Migel Etxebarren sendagileari zilarrezko domina ematea erabaki da.
1966-08-03	Espainiako Txapelketa irabazi duela eta Luis Otanori afari-omenaldi bat egingo zaio.
1966-09-07	Dionisio Mujika, José Mari Amasene eta Santi Amaseneri zilarrezko domina ematea erabaki da. Luis Otanok Espainiako Txapeldunaren trofeoa Peña Otañori eskaini dio.
1967-01-09	Prontxio Aierrari urrezko domina ematea erabaki da.
1969-01-31	Pedro Jesús Bilbaori zilarrezko domina ematea erabaki da.
1971-07-04	Leandro Irazustari urrezko domina eman eta ohorezko lehendakari izendatzea erabaki da. Bere argazkia Peña Otañon jarriko da.
1975-02-02	Francisco Oruezabalari urrezko domina eta Alberto Ruizi zilarrezkoa ematea erabaki da.
1976-09-03	Egindako lanak eta obrak zuzentzeagatik Anjel Azkue bazkide egitea erabaki da.
1977-02-20	Zuzendaritzari zilarrezko domina ematea erabaki da.
1979-05-07	Pedro Jesús Bilbaori urrezko domina ematea erabaki da.
1979-12-10	Ladis Egañari afari-omenaldia, plaka bat ematea eta ohorezko bazkide egitea erabaki da.
1984-01-09	Josetxo Santana eta José Luis González bazkide fundatzaileak eta Elur-Txori omenduko dituzte plaka baten bitartez, bere lankidetzak eskertuz.
1992-02-23	Alfredo Azkueri urrezko domina ematea erabaki da.
2001-02-18	Patxi Iriondori plaka bat eman zaio bere lana eskertuz.

Luis Otañoren txirrindularitza historiala

Peña Otañoren berrogeita hamargarren urteurrena ospatzen ari garen honetan bidezkoa jo dugu Luis Otañoren historiala plazaratzea. Errenterian jaio zen 1934ko urtarrilaren 25ean eta profesional gisa aritu zen 1956 eta 1968 artean. Laburtuta hauxe da bera palmaresa:

URTEA	TALDEA	LASTERKETAK
1956		Espainiako Txapelketan (Gipuzkoarekin) parte hartu zuen; 11. postua lortu zuen.
1957	REAL UNION PALMERA	Legazpian lehenengo postua lortu zuen. Bigarrena, Zumarragan; eta hirugarrena, Antzuolan. Parte hartu zuen: Puenteseke Zirkuituan, Volta a Catanunyan, Eibarreko Bizikletan, Ordizian, Espainiako Txapelketan (Gipuzkoarekin), Lizarran eta Udaberriko Sari Nagusian. ZIKLO-KROSean Espainiako Txapelketan 4. postua lortu zuen, eta Mundukoan 25.a.
1958	BEASAIN CAOBANIA	Ondarroan lehenengo postua lortu zuen. Espainiako Biran: bigarrena, 12. etapan eta hirugarrena 14.ean. Parte hartu zuen ere Espainiako Biran (5.a egin zuen), Eibarreko Bizikletan (6.a), Espainiako Mendi Txapelketan eta Frantziako Tourrean.

URTEA TALDEA

LASTERKETAK

1959 PEUGEOT

Hirugarren postua lortu zuen Espainiako Birako 14. etapan (erlojupekoa). Parte hartu zuen: Andaluziako Bira, Getxo, Volta a Catalunya, Espainiako Txapelketa (Gipuzkoarekin), Eibarreko Bizikleta, Espainiako Txapelketa (erlojupekoa) eta Frantziako Tourrean.

1960 ST. RAPHAEL GEMINIANI

Anvers-en Hiru Egunetan parte hartu zuen eta 1. etapa irabazi zuen; baita Dauphiné Liberéko 4. etapa. Bigarren postua lortu zuen Eibarreko Bizikletako 5. etapan; hirugarrena Dunquerqueko Lau Egunetako 3. etapan eta Paris-Tourseko etapa batean. Parte hartu zuen ere: Tour de Sud-Est, Espainiako Txapelketa (erlojupekoa), Nazioen Sari Nagusia, Eibarreko Bizikleta, Milán-San Remo, Frantziako Tourra, Lieja-Bastogne-Lieja eta Giro de Lombardia probetan.



1961 ST. RAPHAEL GEMINIANI

Espainiako Birako 10. etapan eta Circuit de la Aquitainekeo 4.ean lehenengo postu lortu zuen. Eta hirugarrena Eibarreko Bizikletako 3. etapan eta sailkapen nagusian (erregularitatea ere irabazi zuen). Parte hartu zuen: Niza, Espainiako Bira, Ronde Mont D'Auverne, Frantziako Tourra, Lieja-Bastogne-Lieja, Midi Libre eta Paris-Bruselas probetan.

1962 MAGNAT PALOMA

Espainiako 41. Txapelketa erlojupeko sektorean lehena geratu zen, baita Espainiako Txapelketan ere. Espainiako 17. Txapelketa (Gipuzkoarekin) bigarren postua lortu zuen baita Ordizian ere. Espainiako Txapelketan (lerroko sektorean) hirugarrena lortu zuen... Parte hartu zuen: Suitzako Bira, Dunquerqueko Lau Egunak, Munduko Txapelketa, Frantziako Tourra, Dauphine Liberé, Midi Libre eta Paris-Bruselas lasterketetan.

1963 MAGNAT PALOMA

Midi Libreko 1. etapan eta Espainiako 19. Txapelketan (Gipuzkoarekin) lehenengo postua lortu zuen. Bigarrena, Dunquerqueko Lau Egunetako 3. etapan eta hirugarrena Midi Libreko 4.ean. Volta a Catalunya, Milán-San Remo, Tour du Sud-Est, Frantziako Tourra, Paris-Niza, Paris-Tours, Paris-Roubaix, Lieja-Bastogne-Lieja eta Lombardiako Giroan parte hartu zuen.

1964 FERRYS

Lehenengo postua egin zuen Iruñako Zirkuituan eta Espainiako Birako 9. etapan (sailkapen nagusian 2. egin zuen). Bigarren postua lortu zuen ere Ordiziako Sarian eta Espainiako 20. Txapelketan (Gipuzkoarekin). Hainbat hirugarren eta laugarren postu lortu ere egin zuen: Eibarreko Bizikletako 2. etapan, Espainiako Txapelketan, Frantziako Tourreko 14. etapan,... parte hartu zuen ere Munduko Txapelketan.

1965 FERRYS

Lehenengo postua lortu zuen Eibarreko Bizikletako 2. etapan eta Dauphine Liberéko 6.ean. Bigarrenak, Udaberriko Sari Nagusia, Eibarreko Bizikleta (3. etapan eta sailkapen nagusian), Dauphine Liberé (4. etapan) eta Espainiako 24. Mendiko Txapelketan. Parte hartu zuen Milán-San Remo, Frantziako Tourra eta Munduko Txapelketan.

1966 FAGOR

Lehenengo postua lortu zuen Levanteko Birako 1. etapan, Espainiako Birako 10.ean, Avilako biran 6.ean, Frantziako Tourreko 15.ean eta Espainiako 65. Txapelketan (erlojupekoan). Bigarren postua Espainiako 22. Txapelketan (Gipuzkoarekin), Andaluziako Birako 8. etapan, Espainiako Birako 13 eta 15. etapetan eta Avilako Birako 4.ean... Espainiako Mendi Txapelketa, Eibarreko Bizikletan eta Frantziako Tourrean ere parte hartu zuen.

1967 FAGOR

Espainiako Biran 4. postua lortu zuen. Parte hartu zuen ere Volta a Catalunya, Andaluziako Bira, Eibarreko Bizikleta eta Milán-San Remo lasterketetan, baita Frantziako Tourrean ere (sarrerako etapan 4.a egin zuen).

1968 FAGOR

Besteak beste Suitzako Biran (4.a egin zuen), Mallorcako Biran (5.a) Espainiako Biran (11.a) eta Espainiako Txapelketan parte hartu zuen.